

ZOZKETA AZKEN TXANPAN

Hilabeteak pasatu dira hau dena hasi zenetik, konfinamendua, eskularruak, maskarillak etab..... eta nola ez! Gure zozketa hasi zenetik. Gaur egungo egoerak eta mele batek bezala, gure zozketak ere azkeneko bulkaldia behar du.

Jakingo duzuen bezala, COVID-19 a dela eta, Urteroko errugbi gaupasa famatua bertan behera geratu zen, Baztango Errugbi Taldea kaltetuta geratu zen ekonomikoki. Taldeak ez zuen etsi eta segituan zozketa bat martxan jarri zuen, Non, irabazleak bi sarietako bat aukeratzen ahal duen, Kubara bi pertsonendako bidaia edo Motozerra+Desbrozadora packa. Zure boletoa eskuratu ez baduzu edo gehiago nahi baldin badituzu, ez ezazu aukera galdu eta eskuratu itzazu ekainak 26a baina lehen! www.brtmenditarrak.eus edo jokalariekin kontaktuan jarritz.

Hortaz gain, zuen laguntza eskertzeko eta “normaltasun berria” gogotsu hartzeko, La Unica Errugbi Taldeetik bidali ziguten erronkaren bideoa zabaldu nahi dugu berriro.

Milaesker Errugbia bultzatzeagatik! AUPA BRT!